

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

N-121-A errepidea itxita egon da Bera parean hamar ordu baino gehiagoz luizi bat dela eta

Ostiral honetan, 10:00etan, errepide horretako Belateko tunelen Irungo norabiderako erreia zabaldu da berriz

Viernes, 21 de junio de 2013

N-121-A errepidea (Iruña-Behobia) itxita egon da Bera parean (62. KP) 10 ordu baino gehiagoz, atzoko 18:18tik gaurko 04:55ak arte, luizi bat dela eta.

Berriz ireki ahal izan da gau guztian zehar Errepideen Kontserbazio Zerbitzuko langileak egin duten lanari esker; haiek, luizia gertatu zen lekutik gertu dagoen harrobi bateko zuzendaritzak emandako makinariaren laguntzarekin, bidea ixtea behartu zuten harri handiak galtzadatik kendu ahal izan dute.

Errepidea mozteak Iruña alderako sarrera eta irteerako joan-etorriak eragozten zituen saihesbideak jartzeko aukerarik ez izatean; horrek Nafarroako Gobernuak EAEko laguntza-zerbitzuei (SOS Deiak) laguntza eskatu behar izatea eragin zuen N-121-A zirkulaziorako itxita zegoen bitartean sor zitezkeen larrialdiei erantzuteko.

Irun alderako erreia berriz zabalik, Belaten

Bestalde, [aurreikusita zegoenez](#), ostiral honetan, 10:00etan, Belateko tunelen norabideko erreia zabaldu da berriz, Kontserbazio Zerbitzuak bidearen zati bat garbitu ondoren [ekainaren 9an](#) gertatutako azken luiziaren ondoren. Aldiz, Iruña alderako zirkulazioa Belateko mendateko errepidetik (NA-1210) bideratzen jarraitzen da.

Gogora ekarri behar da hegala egonkortzeko lanak ez direla amaitu eta eroritako materialen baldintzek, ur pila dutenak, galtzadatik erabat kentzea eragozten dutela meteorologia-baldintzak hobetzen ez diren bitartean; izan ere, makinaria ez da hegala erdialdera heltzen eta ura buztin artean dabil. Arrazoi hori dela eta, Sustapen Departamentuak zonalde horretan etengabeko kontrol eta zaintza jarri du 24 orduz, telebistako kamerekin eta langileak "in situ" jarriz.

www.incidenciascarreteras.navarra.es webgunean eta 848 423 500 telefonoan Foru Komunitateko errepideen egoeraren informazio



N-121-A errepideko galtzadara eroritako harriak, Bera parean.

eguneratua eskaintzen da.